

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA

2024ko azaroaren 15ean egindako ohiko bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak lanpostu zerrenda aldatzea onetsi zuen

Lanpostu zerrenda (LPZ) administrazio publikoek plazen eta lanpostuen egitura antolatzeke erabiltzen duten nahitaezko tresna teknikoa da, kalitateko zerbitzu publikoa eskaini eta enplegatu publikoak behar bezala kudeatu ahal izateko. Sailek adierazten dituzten beharren arabera antolatutako egintza da, haiek zehazten baitituzte antolakunde osoa eratzten duten lanpostuetan jarduteko betekizunak. Administrazioak bere burua antolatzeke duen ahalmenaren adierazpena da, legeak babestua. Administrazio publikoek berezko dituzten helburuetarako beren burua antolatzeke duten gaitasuna Konstituzioak aitortutako autonomiaren adierazpen gorenena da.

Lanpostu zerrendan lanpostuaren funtsezko ezaugarriak, eginkizunak eta lanpostua eskuratzeko betekizunak agertzen dira. Tresna dinamiko bat da, eta Udaltzarak une bakoitzean dituen beharrei erantzuten die. Horregatik ezinbestekoa da hura egokitu eta aldatzea, erakundeak dituen beharrak bete behar baititu.

2024ko urriaren 30ean, Antolakuntza Zerbitzuak lanpostu zerrenda aldatzeko beharraren berri eman zuen, proposatutako aldaketak lau ataletan multzokatuta:

1. Lanpostuaren ezaugarriak aldatzea: lanpostuaren izena, titulazio-eskakizunak, berriazko osagarria, lanpostuaren lanaldiaren ehunekoa eta/edo hizkuntza-eskakizuna.
2. Taldea eta eskala aldatzea.
3. Lanpostua hornitzeko modua aldatzea.
4. Lanpostua aldatzea.

Txostenaren arabera, proposatutako aldaketak udal sailtako arduradunek egindako eskaeren emaitza dira, zeinei egoki iritzi baitie Antolakuntza Zerbitzuko arduradunak, edo Antolakuntzaren Kudeaketaren Zerbitzuak berak proposatutakoak, azken horiek udal plantillan gertatzen diren erretiroen ondorioz hutsik geratutako lanpostuak kudeatzeko, lanpostuen zerrenda eguneratzeko aukera baita.

Antolakuntzaren Kudeaketaren Zerbitzuak beharrezkotzat jotzen du lanpostuak une honetan garatzen ari diren jarduera-eremuari eta zereginei egokitzea, erakundeak eskatzen duenari hobe erantzutearren. Proposatutako aldaketak erabaki-proposamen honen eranskinean jaso dira.

Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 90.2 artikulua eta urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak xedatzen dute derrigorrezkoa dela lanpostu-zerrenden bitartez egituratzea erakundeak. Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren testu bateginaren arabera, gainera, tresna hori publikoa izango da.

Bestalde, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legeak haxe dio 45. artikuluan:

2. Lanpostu-zerrendek alderdi hauek hartuko dituzte barruan, batera edo bereizita: aurrekontuan zuzkidura duten egiturako lanpostu guztiak, funtzionario, langile lan-kontratadun eta behin-behineko langileentzat erreserbatuta daudenak.

6. Nolanahi ere den, lanpostu-zerrenden bitartez sortu, kendu edo aldatuko dira lanpostuak. Era berean, egitura organikoa aldatu nahi izanez gero, aldi berean aldatu beharko dira dagozkien lanpostu-zerrendak edo haien ordezkotresnak.

Halaber, administrazio publikoak, bere burua antolatzeko duen eskumena dela eta, zerbitzuak egokien deritzon moduan antola ditzake eraginkorragoak izan daitezen, Konstituzioaren 103.1 artikuluan emandako aginduaren ildotik, eta bere interesak betetzeko antolaera egokienak aukeratu.

Hortaz, efikazia hori lortze aldera, eta kontuan izanik zenbait lanpostutan egokitzapenak egiteko premia, Antolakuntzaren Kudeaketaren Zerbitzuak txosten arrazoitua egin du, beharrezkotzat jotzen baitu lanpostuak oraingo jarduera-eremuari eta zereginei egokitzea, erakundeak eskatzen duenari hobeto erantzutearren. Aipaturiko aldaketa guztiak proposamen honen eranskinean jasota daude.

Aldaketak indarrean dagoen araudiaren ildotik izapidetu dira, eta aldeko txostena egin du Udaleko Kontu Hartzaitzaren organoaren titularrak aurrekontu-kreditua egoteari buruz.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 37.1 a) eta b) artikuluan eta Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 40.5 artikuluan xedatutakoari jarraituz, bilerak egin dira Udaleko Langileen Batzordearekin, 2024ko urriaren 29an eta azaroaren 15ean, hain zuzen.

Euskal Enplegu Publikoaren Legeak 45.3 artikuluan xedatzen du lanpostu-zerrendaren aldaketak lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratu behar direla.

Beraz, aurreko paragrafoetan adierazitakoa kontuan izanik, Toki Araubidearen Oinarririk arautzen dituen 7/1985 Legearen 127. artikulua —abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua— aitortzen dizkion eskumenez baliatuz, eta 2023ko ekainaren 22ko erabakiaren bitartez haren esku utzitako aginpidea betez, Funtzio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkariak erabaki proposamen hau aurkezten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehen. Lanpostu zerrendaren aldaketa onestea, eranskinean adierazten denaren arabera.

Bigarrena. Funtzio Publikoaren Sailari agintzea behar diren izapideak egin ditzan lanpostu zerrenda aldatzeko.

Hirugarrena. Lanpostu zerrenda aldatzeko erabaki hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena. Erabaki honen kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa hilabeteko epean, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Orokorri buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluekin lotuta aurreikusitakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko azaroaren 5ean

Funtzio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkaria
JON ARMENTIA FRUCTUOSO

Eranskina

1. Lanpostuaren ezaugarriak aldatzea: lanpostuaren izena, titulazio-eskakizunak, berariazko osagarria, lanpostuaren lanaldiaren ehunekoa eta/edo hizkuntza-eskakizuna,

03- Segurtasuna.

Kudeaketaren eta Baliabideen Atalari (033010.247) atxikitako kudeaketaren eta baliabideen burua lanpostua (ID 1366) aldatzea. Hornikuntza-sistema: lehiaketa; taldea: A2; titulazioa: 500 (erdi-mailako unibertsitate titulua edo baliokidea); 2120B eskala (administrazio berezia; azpieskala: tekniko; mota: erdi-mailako teknikaria); hizkuntza-eskakizuna: 3.a, derrigortasun-datarik gabe; destino-osagarria: 25, eta berariazko osagarria: 55; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 05—,

Aurrerantzean:

Kudeaketaren eta Baliabideen Atalari (033010.247) atxikitako kudeaketaren eta baliabideen burua (ID 1366). Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: A2; titulazioa: 500 (erdi-mailako unibertsitate titulua edo baliokidea); 2120B eskala (administrazio berezia; azpieskala: tekniko; mota: erdi-mailako teknikaria); hizkuntza-eskakizuna: 3.a, derrigortasun-datarik gabe; destino-osagarria: 25, eta berariazko osagarria: 55; dedikazioa: ehuneko 115; IT txartela: 05.

10- Administrazioa Modernizatzea.

1. Aplikazioen Atalari (101101.5026) atxikitako informatika aplikazioetako goi-mailako teknikaria lanpostua aldatzea. Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 652 (informatikako, zientzia zehatzetako, zientzia fisikoetako lizentzia; informatika ingeniarietza, telekomunikazioetako goi-mailako ingeniarietza edo elektronikako goi-mailako ingeniarietza), D41 (ingeniaritza informatikoko gradua, D03 (informatika), B10 (matematika) edo B08 (fisika); 2110A eskala (administrazio berezia; azpieskala: tekniko; mota: goi-mailako teknikaria); hizkuntza eskakizuna: 3.a; destino osagarria: 24, eta berariazko osagarria: 70; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 05,

Aurrerantzean:

Aplikazioen Atalari (101101.5026) atxikitako informatika aplikazioetako goi-mailako teknikaria. Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 652 (informatikako, zientzia zehatzetako, zientzia fisikoetako lizentzia; informatika ingeniarietza, telekomunikazioetako goi-mailako ingeniarietza edo elektronikako goi-mailako ingeniarietza), D41 (ingeniaritza informatikoko gradua, D03 (informatika), B10 (matematika), B08 (fisika) edo D28 (komunikazioaren teknologiko ingeniarietza, edo telekomunikazio sistemetako ingeniarietza); 2110A eskala (administrazio berezia; azpieskala: tekniko; mota: goi-mailako teknikaria); hizkuntza eskakizuna: 3.a; destino osagarria: 24, eta berariazko osagarria: 70; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 05.

2. Ustiapenaren eta Komunikazioen Zerbitzuko Ustiapen Atalari (101201.111) atxikitako ustiapen eta komunikazioen burua lanpostuari (ID 1483) izena aldatzea. Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 626 (informatikako, zientzia zehatzetako edo zientzia fisikoetako lizentzia) edo D22 (komunikazioaren teknologietako ingeniarietza); 2110A eskala (administrazio berezia; azpieskala: tekniko; mota: goi-mailako teknikaria); hizkuntza eskakizuna: 3.a, derrigortasun datarik gabea; destino osagarria: 28; berariazko osagarria: 20; dedikazioa: ehuneko 115; IT txartela 05,

Aurrerantzean:

Ustiapen eta telekomunikazioen burua.

3. Ustiapenaren eta Komunikazioen Zerbitzuko Ustiapen Atalari (101201.407) atxikitako ustiapen eta komunikazioen ataleko burua lanpostua (ID 1489) aldatzea. Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: C1; titulazioa: 302 (LH-II, informatika); 2230C eskala (administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: zeregin berezietako plazak); hizkuntza eskakizuna: 3.a, derrigortasun datarik gabea; destino osagarria: 21; berariazko osagarria: 135; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 05,

Aurrerantzean:

Ustiapen eta Komunikazioen Zerbitzuko Ustiapen Atalari (101201.407) atxikitako ustiapen eta CAU ataleko burua (ID 1489). Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: C1; titulazioa: 302 (LH-II, informatika); 2230C eskala (administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: zeregin berezietako plazak); hizkuntza eskakizuna: 2.a, derrigortasun datarik gabea; destino osagarria: 21; berariazko osagarria: 135; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 05.

4. Ustiapen eta Komunikazioen Zerbitzuko Ustiapen Atalari (101201.407) atxikitako tresneria multzoaren koordinatzailea lanpostua (ID 1379) aldatzea. Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: C1; titulazioa: 300 (goi-mailako batxilergoa, LH-II, III. mailako lanbide modulua edo baliokidea); 2230C eskala (administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: zeregin berezietarako plazak); hizkuntza eskakizuna: 3.a, derrigortasun datarik gabea; destino osagarria: 21; berariazko osagarria: 135; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 05,

Aurrerantzean:

Ustiapen eta Komunikazioen Zerbitzuko Ustiapen Atalari (101201.407) atxikitako tresneria multzoaren koordinatzailea (ID 1379). Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: C1; titulazioa: 300 (goi-mailako batxilergoa, LH-II, III. mailako lanbide modulua edo baliokidea); 2230C eskala (administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: zeregin berezietarako plazak); hizkuntza eskakizuna: 2.a, derrigortasun datarik gabea; destino osagarria: 21; berariazko osagarria: 135; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 05.

5. Ustiapenaren eta Komunikazioen Zerbitzuko Ustiapen Atalari (101201.950) atxikitako telekomunikazioetako teknikari espezialista lanpostua (ID 7755) aldatzea. Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: C1; titulazioa: Z998 (elektrizitate eta elektronikaren arloko lanbide-heziketako titulazio-familiako teknikaria, edo sareko informatika-sistemen administrazioko goi-mailako teknikaria, homologatuak nahiz baliokideak); 2230C eskala (administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: zeregin berezietarako plazak), eta 2130C eskala (administrazio berezia; azpieskala: teknikoak; mota: teknikari laguntzailea); hizkuntza eskakizuna: 2.a, derrigortasun datarik gabe; destino osagarria: 19; berariazko osagarria: 925; dedikazioa: ehuneko 115; IT txartela: 05; gidabaimena: B,

Aurrerantzean:

Ustiapenaren eta Komunikazioen Zerbitzuko Ustiapen Atalari (101201.950) atxikitako telekomunikazioetako teknikari espezialista (ID 7755). Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: C1; titulazioa: Z998 (elektrizitate eta elektronikaren arloko lanbide-heziketako titulazio-familiako teknikaria, edo sareko informatika-sistemen administrazioko goi-mailako teknikaria, homologatuak nahiz baliokideak, edo multiplataforma aplikazioen garapeneko goi-mailako teknikaria edo baliokidea); 2230C eskala (administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: zeregin berezietarako plazak), eta 2130C eskala (administrazio berezia; azpieskala: teknikoak; mota: teknikari laguntzailea); hizkuntza eskakizuna: 2.a, derrigortasun datarik gabe; destino osagarria: 19 berariazko osagarria: 925; dedikazioa: ehuneko 115; IT txartela: 05; B gidabaimena.

2. Taldea eta eskala aldatzea,

04. Ogasuna.

Zuzendaritza Nagusiaren Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiaren Atalari (041011.8016) atxikitako bulego teknikoetako eraikinen koordinatzailea lanpostua (ID 320) aldatzea. Hornikuntza sistema: lehiaketa; taldea: A2; titulazioa: 500 (erdi-mailako unibertsitate titulua edo baliokidea); eskala: 2230B (administrazio berezia, azpieskala: zerbitzu bereziak, mota: zeregin berezietako plazak); 1100B (administrazio orokorra, azpieskala: teknikoak); 1110B (administrazio orokorra, azpieskala: kudeaketa), eta taldea: C1; titulazioa: 300 (goi-mailako batxilergoa, LH-II, III. mailako lanbide modulua edo baliokidea); eskala: 1110C (administrazio orokorra, azpieskala: kudeaketa); 1200C (administrazio orokorra, azpieskala: administrazioa); 2230C (administrazio berezia, azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: zeregin berezietako plazak); hizkuntza eskakizuna: 3.a, derrigortasun datarik gabea; destino osagarria: 22; berariazko osagarria: 56; dedikazioa: ehuneko 115; IT txartela: 05,

Aurrerantzean:

Zuzendaritza Nagusiaren Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiaren Atalari (041011.8016) atxikitako bulego teknikoetako eraikinen koordinatzailea (ID 320). Hornikuntza sistema: lehiaketa; taldea: A2; titulazioa: 500 (erdi-mailako unibertsitate titulua edo baliokidea); eskala: 2230B (administrazio berezia, azpieskala: zerbitzu bereziak, mota: zeregin berezietako plazak); 1100B (administrazio orokorra, azpieskala teknikoa); 1110B (administrazio orokorra, azpieskala: kudeaketa); hizkuntza eskakizuna: 3.a, derrigortasun datarik gabea; destino osagarria: 22; berariazko osagarria: 56; dedikazioa: ehuneko 115; IT txartela: 05.

3. Lanpostua hornitzeko modua aldatzea,

23- Kultura eta Hezkuntza.

Hezkuntza Zerbitzuko Haurtzarorako Hezkuntza Atalari (231901.1432) atxikitako haur eskolako zuzendaria lanpostua (ID 7470, 7474, 7484, 7486) aldatzea. Hornitzeko sistema: izendapen libre; taldea: A2; titulazioa: 500 (erdi-mailako unibertsitate titulua edo baliokidea); 2120B eskala (administrazio berezia; azpieskala: teknikoa; mota: erdi-mailako teknikaria); hizkuntza eskakizuna: 3.a, derrigortasun data: 2003/12/31; destino osagarria: 25; berariazko osagarria: 57; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela 05,

Aurrerantzean:

Hezkuntza Zerbitzuko Haurtzarorako Hezkuntza Atalari (231901.1432) atxikitako haur eskolako zuzendaria (ID 7470, 7474, 7484, 7486). Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: A2; titulazioa: 500 (erdi-mailako unibertsitate titulua edo baliokidea); 2120B eskala (administrazio berezia; azpieskala: teknikoa; mota: erdi-mailako teknikaria); hizkuntza eskakizuna: 3.a, derrigortasun data: 2003/12/31; destino osagarria: 25; berariazko osagarria: 57; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela 05.

4. Lanpostua aldatzea,

09. Funtzio Publikoa.

1. Antolakuntzaren Kudeaketaren Zerbitzuko Zerbitzuen Atal Osagarriari (091502.203) atxikitako Erosketa eta Kontratazio Zerbitzuko buruaren lanpostua (ID 302) aldatzea. Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 640 (zuzenbideko lizentzia); 2110A eskala (administrazio berezia; azpieskala: teknikoa; mota: goi-mailako teknikaria); hizkuntza eskakizuna: 3.a, derrigortasun datarik gabea; destino osagarria: 28; berariazko osagarria: 20; dedikazioa: ehuneko 115; IT txartela: 05,

Aurrerantzean:

Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzuko Atal Juridikoari (013001.1015) atxikitako legelari nagusia (ID berria). Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 640 (zuzenbideko lizentzia); 2110A eskala (administrazio berezia; azpieskala: teknikoa; mota: goi-mailako teknikaria); hizkuntza eskakizuna: 3.a, derrigortasun datarik gabea; destino osagarria: 28; berariazko osagarria: 24; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 05.

2. Giza Baliabideen Kudeaketaren Zerbitzuko Giza Baliabideen Kudeaketaren Atalari (091201.8006) atxikitako espezialista lanpostuaren dotazio bat (ID 1432) aldatzea. Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: C1; titulazioa: 300 (goi-mailako batxilergoa, LH-II, III. mailako lanbide modulua edo baliokidea); 2230C eskala (administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: zeregin berezietarako plazak); hizkuntza eskakizuna: 2.a; derrigortasun data: 2023/12/15; destino osagarria: 21; berariazko osagarria: 135; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 05,

Aurrerantzean:

Espazio Publikoaren eta Natur Ingurunearen Zerbitzuko Hiri Paisaiaren Atalari (152007.1604) atxikitako lorategi-ikuskatzailea lanpostuaren dotazio bat (ID berria). Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: C1; titulazioa: Z312 (basoak eta natura-ingurunea kudeatzeko goi-mailako heziketa zikloa) edo Z313 (paisajismo eta landa-ingurune goi-mailako heziketa zikloa) edo baliokideak; 2230C eskala (administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: zeregin berezietarako plazak); hizkuntza eskakizuna: 2.a, derrigortasun data: 2024/12/02; destino osagarria: 21; berariazko osagarria: 135; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 05; gidabaimena: B.

10- Administrazioa Modernizatzea.

1. Ustiapenaren eta Komunikazioen Zerbitzuko Ustiapen Atalari (101201.942) atxikitako ekipo informatikoak mantentzeko teknikari espezialista lanpostuaren (ID 1490) dotazio bat aldatzea. Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: C1; titulazioa: Z302 (informatika eta komunikazioen arloko lanbide-heziketako titulazio-familiako teknikaria, edo telekomunikazio- eta informatika-sistemen goi-mailako teknikaria (LOE), homologatuak nahiz baliokideak); 2130C eskala (administrazio berezia; azpieskala: teknikoak; mota: teknikari laguntzailea); hizkuntza eskakizuna: 2.a, derrigortasun datarik gabe; destino osagarria: 19; berariazko osagarria: 166; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 05 eta 08; gidabaimena: B,

Aurrerantzean:

Ustiapenaren eta Komunikazioen Zerbitzuko Ustiapen Atalari (101201.950) atxikitako telekomunikazioetako teknikari espezialista (ID berria) lanpostuaren dotazio bat. Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: C1; titulazioa: Z998 (elektrizitate eta elektronikaren arloko lanbide-heziketako titulazio-familiako teknikaria, edo sareko informatika-sistemen administrazioko goi-mailako teknikaria, homologatuak nahiz baliokideak); 2230C eskala (administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: zeregin berezietako plazak, eta 2130C eskala (administrazio berezia; azpieskala: teknikoak; mota: teknikari laguntzailea); hizkuntza eskakizuna: 2.a, derrigortasun datarik gabe; destino osagarria: 19; berariazko osagarria: 925; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 05; B gidabaimena.

2. Ustiapenaren eta Komunikazioen Zerbitzuko Ustiapen Atalari (101201.947) atxikita dagoen komunikazioetako operadore/programatzaile lanpostua (ID 1491) aldatzea. Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: C1; titulazioa: 302 (LH-II, informatika); 2130C eskala (administrazio berezia; azpieskala: teknikoak; mota: teknikari laguntzailea), eta 2230C eskala (administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: zeregin berezietako plazak); hizkuntza eskakizuna: 2.a, derrigortasun data: 2002/12/31; destino osagarria: 19; berariazko osagarria: 166; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 05 eta 08; gidabaimena: B,

Aurrerantzean:

Ustiapenaren eta Komunikazioen Zerbitzuko Ustiapen Atalari (101201.950) atxikitako telekomunikazioetako teknikari espezialista (ID berria). Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: C1; titulazioa: Z998 (elektrizitate eta elektronikaren arloko lanbide-heziketako titulazio-familiako teknikaria, edo sareko informatika-sistemen administrazioko goi-mailako teknikaria, homologatuak nahiz baliokideak, edo multiplataforma aplikazioen garapeneko goi-mailako teknikaria edo baliokidea); 2130C eskala (administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: zeregin berezietako plazak), eta 2230C eskala (administrazio berezia; azpieskala: teknikoak; mota: teknikari laguntzailea); hizkuntza eskakizuna: 2.a, derrigortasun datarik gabe; destino osagarria: 19 berariazko osagarria: 925; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 05; gidabaimena: B.

3. Idazkaritza Teknikoaren Zerbitzuko Datuen Segurtasunerako Atalari (101701.5041) atxikitako kudeaketako goi-mailako teknikaria (informatika arloa) lanpostua (ID 1368) aldatzea. Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 643 (informatika, zientzia zehatzetako edo zientzia fisikoetako lizentzia); 2110A eskala (administrazio berezia; azpieskala: teknikoak; mota: goi-mailako teknikaria); hizkuntza eskakizuna: 3.a, derrigortasun datarik gabe; destino osagarria: 24; berariazko osagarria: 70; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 05,

Aurrerantzean:

Aplikazioen Atalari (101101.5026) atxikitako informatika aplikazioetako goi-mailako teknikaria (ID berria). Hornitzeko sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 652 (informatikako, zientzia zehatzetako, zientzia fisikoetako lizentzia; informatika ingeniari-tza, goi-mailako telekomunikazio ingeniari-tza edo goi-mailako elektronika ingeniari-tza), D41 (ingeniaritza informatikoko gradua, D03 (informatika), B10 (matematika), B08 (fisika) edo D28 (komunikazioaren teknologiko ingeniari-tza, edo telekomunikazio sistemen ingeniari-tza); 2110A eskala (administrazio berezia; azpieskala: tekniko-a; mota: goi-mailako teknikaria); hizkuntza eskakizuna: 3.a, derrigortasun-datarik gabe; destino osagarria: 24, eta berariazko osagarria: 70; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 05.

11. Gizarte Politikak.

Adinekoen Zerbitzuko Adinekoen Atalari (113310.6018) atxikitako Ataleko arduradun lanpostua (ID 9391) aldatzea. Hornikuntza-sistema: lehiaketa; taldea: A2; titulazioa: 500 (erdi-mailako unibertsitate titulua edo baliokidea); 2120B eskala (administrazio berezia, azpieskala: erdi-mailako teknikaria); hizkuntza-eskakizuna: 3.a, derrigortasun-datarik gabe; destino-osagarria: 23, eta berariazko osagarria: 90; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 05,

Aurrerantzean:

Adinekoen Zerbitzuko Adinekoen Atalari (113310.1305) atxikitako gainbegiralea (ID berria). Hornikuntza-sistema: lehiaketa; taldea: A2; titulazioa: 530 (erizaintzako erdi-mailako unibertsitate-titulua edo baliokidea); 2120B eskala (administrazio berezia; azpieskala: tekniko-a; mota: erdi-mailako teknikaria), eta 2230B eskala (administrazio berezia, azpieskala: zerbitzu bereziak; mota: zerbitzu berezietako plazak); hizkuntza-eskakizuna: 3.a, derrigortasun-datarik gabe; destino-osagarria: 23; berariazko osagarria: 90; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 05.